



# Aurrera!

21. zk.

2006ko martxoa

Informatika eta Telekomunikazioetako Teknologia Berriak Jendarteratzeko Aldizkaria

*ITZko Bulego Teknologikoak argitaratua*

## AURKIBIDEA

- Elkarlaneko ingurunea  
2. or.
- Blog korporatiboak  
6. or.
- Alboan:
  - HAEE
  - IDABA: Itzulpenen Datu Basea  
10. or.
- Laburrak:
  - Software gehiago euskaraz
  - KZ Banda Zabala proiektua  
12. or.

**E**lkarlana: lantalde baten barruan garatzen diren jarduera askoren oinarri izan behar duen kontzeptua. Askotan (gehiegitan, beharbada, eta oso arrazoi ezberdinak direla medio), zaila izaten da kontzeptu hori ahalik eta modu eraginkorrenean praktikan jartzea.

Arrakastatsua izatea eragotz dezaketen oztopoak teknologikoak edo antolaketakoak izan ohi dira. Hala ere, azkenaldian merkatuan agertzen ari diren soluzio informatikoen joera ikusita, esan dezakegu gero eta errazagoa izango dela ingurune jakin bat sortzea, besteak beste, lantaldearen barruan informazio-trukeak ahalbidetzeko eta erlazionatutako beste zeregin batzuk automatizatzeko. Hori dela eta, hurrengo urratsa, urratsik garrantzitsuena, lantaldeko kide diren bukaerako erabiltzaileek parte har dezaten edo parte hartzeko prest egon daitezten lortzea da.

Sarean sortutako azken joerei jarraiki (bere garaian, blog partikularrez hitz egin genuen), “blog korporatibo” izeneko egungo egoera aztertuko dugu; adituen ustez, aurtengoa oso urte ona izan daiteke horientzat.


Kasu honetan, Alboan atalean, HAEEko Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak (bere euskarazko siglez, IZO, ezagunagoa denak) sortutako itzulpen-memoria guztiak bere baitan biltzen dituen informazio-sistema ezagutzera eman nahi dugu. Sistema hori lan-tresna nagusia bihurtzen ari da itzultzaile askorentzat, zerbitzu ugari eskaintzen dituelako eta erabilerraza delako.

AURRERA aldizkariko azken orrialdean, Eusko Jaurlaritzak berak abiarazi dituen bi ekimen berri ezagutaraziko ditugu: lehenaren bidez, Kultura Sailaren web orrialdean biztanle guztiak eskura duten euskarazko software zerrenda eguneratu da. Bigarren ekimenaren bidez, Itelazpi sozietate publikoaren kudeaketa-lanei esker, urte honen amaieran Euskadi biztanleei Internetera banda zabalaren bidez sartzea ahalbidetuko dien Europako lehen eskualdea izango da. Horrela, guztiontzako informazioaren gizartea gauzatu ahal izango da.

## ELKARLANEKO INGURUNEA



"Elkarlaneko ingurunea" izeneko kontzeptuari esker, erakundeek hainbat pertsonaren partaidetza duten proiektuak koordinatu ditzakete. Adituen esanetan, horrelako soluzioek gero eta interes handiagoa pizten dute, ezagutza-baseak sortzea ahalbidetzen baitute, informazioa eta iraganeko esperientziak trukatzeko.



### HIZTEGIA

<sup>(1)</sup> **Groupware:** lantalde bateko erabiltzaileei informazioa trukatzea ahalbidetzen dien softwarea edo aplikazio-multzoa, banaketa geografikoaren problematikari aurre eginez. Groupware soluzioen bidez, informazio guztia gune bakarrean bildu ahal izango da eta erakunde edo lantalde baten eskakizunen arabera kontsultatu (eta sailkatu).

*"Groupware: elkarlana eraginkorragoa izatea ahalbidetzen duen informazioaren teknologia".*

(Coleman eta Shapiro, 1992)

**T**eknologia Berriak izenekoek aldaketak eragin dituzte lantaldeetako kideen lan egiteko eta jarduteko moduan. Informazioaren teknologien arloan, esate baterako, Groupware<sup>(1)</sup> hitza erabiltzen da; horri esker, erakunde batek informazioa bere langileen artean parteka dezake eta langile horien ezagutza bultzatu. Kontzeptu horretaz eta euskarri duen softwareaz baliatuta, gaur egun lantaldeak errazago eta azkarrago aritu daitezke elkarlanean.

### PROIEKTUAK

Kasuan kasuko proiektu-mota gorabehera, proiektu bat bideratu eta gauzatzekoan, beharrezko agiri guztiak azkar eta doitasunez trukatu behar dira; izan ere, proiektu bat burutzeko izapidetu beharreko agiriak eta egin beharreko administrazio-zereginak era askotarikoak eta ugariak dira eta, batzuetan, oso konplexuak ere izan daitezke.

Bestalde, proiektuak kudeatzeko garaian, erakundeek kolaboratzaile ugarirekin lan egin behar izaten dute, nola barnekoak hala

kanpokoak. Horrek guztiak elkarri lotutako agiriak eta informazioa modu konplexuan gobernatzea dakar berekin; zeregin horren **sinkronizazioa**, **partekatzea** eta **elkarlana** funtsezko elementuak dira.

**"Helburua lantaldeko kideei guztiaren berri ematea eta informazio eguneratua helaraztea da."**

Agiriak (edo "lanerako paperak") etengabe aldatzen doaz, proiektuak irauten duen denboraldian zehar, eta, arestian esan bezala, proiektuak aurrera egin ahala era askotako erabiltzaileen esku egon ohi dira. Horren guztiaren ondorioz, datuak eta agiriak eguneratu egin behar dira; horrela, aldaketetara egokituko dira eta, aurrerago, taldeko edozein kidek berrikusi ahal izango ditu, euskarria eman eta/edo mantentze-lanak egiteko.

Elkarlaneko ingurune orok hiru eskakizun hauek bete behar ditu:

- Proiektuko eduki eta agiri guztien **bilduma zentralizatua** izatea. Proiektuek datu eta agirien inguruan "egia bakarra" baldin badago bakarrik egingo dute aurrera. Hori lortzeko sarrera erraza eta biltegi-sistema zentralizatu bakarra erabiltzea biderik egokiena da.
- **Elkarlan-giroa sortzea.** Proiektuetan parte hartzen dutenek erabiliko duten elkarlaneko inguruneari euskarria ematea funtsezkoa da eragiketen eraginkortasuna eta proiektuen efizientzia orokorra hobetzeko. Euskarriak zentralizatua izan behar du eta erabilerraza proiektuaren kudeatzaileentzat; halaber, erabiltzaile guztientzat komunak eta/edo ezagunak diren tresnen bidez sartzeko aukera eman behar du.



- Funtzio anitzeko **sarrerak** eta **seguruak** izatea. Bai banakako erabiltzaileei bai erakundeei segurtasun-maila handia eskaini ahal izatea funtsezkoa eta beharrezkoa da ingurune horiek arrakasta izan dezaten.

## AURREKARIAK

Garai batean, elkarlanaz hitz egiterakoan adituek, funtsean, mezularitzako tresna tradizionalak aipatu ohi zituzten, besteak beste, Lotus Notes, Microsoft Exchange, Novell Groupwise, e.a. Hala ere, tresna horiek, ia erakunde guztietan daudenak, gaur egun plataforma gisa erabiltzen dira eta, horien gainean, elkarlana nolabait errazten duten garapen espezifikoak egin ohi dira. Arazoa da, gaur egun, halako aplikazioak garatzea gero eta zailagoa dela.

Aldi berean, tresna-belaunaldi berria agertu zen; bertan, sarean lan egitea ahalbidetzen duten laneko eremuak kudeatzeko programak biltzen ziren (“*digital workspace*” ere deituak).

Azken urteotan, posta elektronikoko zerbitzua komunikaziorako tresna erabilienera bihurtu da edozein erakundeko langileen artean. Hori dela eta, gaur egun mezularitzako zerbitzua langileek elkarlanerako erabiltzen duten tresna bakarra bihurtu da erakunde gehienetan.



Hala ere, gogoan izan behar dugu **mezularitzako zerbitzua ez dela elkarlanerako tresna, baizik eta komunikaziorako tresna baino ez**. Hori gorabehera, ohitura txarrei jarraiki, oraindik ere posta elektronikoz bidaltzen dira partekatu nahi diren fitxategiak, datuak edo dokumentuak; proiektu jakin bati buruzko informazio guztia erabiltzaile bakoitzak dituen karpeta pertsonaletan sailkatzen da; e.a. Baina zer gertatzen da proiektuari beste kide berri bat elkartzeko zaionean? Nola helarazten zaio proiektuarekin erlazionatutako informazio

guztia? Zer gertatzen da agiri jakin baten azken bertsioa bilatzeko orduan, postontzian agiri horren hainbat bertsio badaude eta ez badakigu taldeko zeinek duen azken bertsioa?.

Egoera berri horien aurrean, mezularitzako zerbitzu tradizionala jada ez da soluziorik egokiena; garbi dago, beraz, posta-zerbitzuek gainezka egin dutela. Ildo horretatik, esan dezakegu elkarlanerako guneak kudeatzeko jada



merkatuztatzen hasi diren tresna berriak ezin hobeki egokitzen direla betekizun berrietara. Eta nola gainera!. Adituen ustez, tresna horiek informazio-sistemaren hirugarren geruza osatzen dute eta horiei esker, elkarlanean aritu eta gure postontziak libre utzi ahal izango ditugu.


Hortaz, tresna horien guztien bukaerako helburua da tartean den pertsona eta/edo erakunde orori honakoak egiteko bidea ematea:

- Lantaldeko kide guztiak informatuta eta eguneratuta izatea, oztopo geografikoak edo denborazkoak aintzat hartu gabe.
- Erabiltzeko erraza den tresna eskaintzea.
- Gizabanakoen ezagutzak, esperientziak, sormena eta ekimenak kapitalizatzea.
- Erakundeko prozesuetan konpromisoaren kultura eta elkarlana sustatzea.

## SHAREPOINT

Eusko Jaurlaritzak elkarlanerako tresna gisa ebaluatutako produktuetako bat Microsoft Sharepoint<sup>(2)</sup> da. Estandarren arabera, sailletako edozein proiekturi heltzeko orduan, agiriak erabiltzaileen artean partekatzeko bitarteko gisa erabiliko da produktu hori (bai barnekoen bai kanpokoaren artean).

Orain arte Eusko Jaurlaritzan<sup>(3)</sup> egin diren proba pilotuetan oinarrituta, esan dezakegu Sharepoint-ek honakoak egiteko aukera ematen duela:



## HIZTEGIA

### (2) SHAREPOINT:

“Sharepoint” hitzak kontzeptu bati baino gehiagori egiten dio erreferentzia. Hona hemen kontzeptu horiek, labur-labur azalduta:

Egun “**Windows SharePoint Services**” (WSS) izenaz ezagutzen denaren aurretik “SharePoint Team Services” egon zen. Horregatik esaten da “SharePoint Team Services” produktu-familia honetako 1. bertsioa dela eta WSS 2. bertsioa.

Eusko Jaurlaritzak “Windows SharePoint Services” erabili du azken hilabete hauetan egindako proba pilotuei eta 2. bertsioko “Sharepoint Portal Server” izenekoaren bilatzaileari euskarria emateko.

Bukatzeko, esan behar da “Windows SharePoint Services” Microsoft Windows Server2003 delakoan barnaratu dagoela.



## HIZTEGIA

### (3) EUSKO JAURLARITZA:

2005ean zehar, Eusko Jaurlaritzak estandartzat hartu behar zuen elkarlanerako tresnak bete beharreko betekizunak ezarri ziren. Ildo horretatik, Kultura Sailak, proba pilotu modura, laneko inguruneak ezartzeko eskatu die Saileko bertako informatikariei, Sharepoint elkarlanerako tresna ebaluatzeko.

Era berean, beste 10 ekimen inguru ere jarri dira abian, horiek ere proba pilotu modura. Ekimen horien artean, honako hauek aipa daitezke: JASO proiektua, Hezkuntzako garapen-taldea, Industriako garapen-taldea, ITZ, Itelazpi, Osteba, e.a.

- **Proiektuaren ikuspegi orokorra sortu**, egunean zehar zein informazio eta/edo agiri erabili diren ikus baitezakegu. Beste iturri batzuetatik datorren informazio zehatz eta garrantzitsua aurkitu eta berrerabili daiteke, baita agiriak eta/edo proiektuak berehala identifikatu eta eskuratu ere.
- **Informazio garrantzitsuena interesdunen eskura jarri**: modu eraginkorragoan lan egin ahal izango dugu informazioa adierazgarriagoa bada eta eguneratuta badago. Ikusi dugunez, horrelako soluzio bat izateak abantaila ugari du. Adibide batekin berehala ulertuko dugu: jakinarazpena jasotzen duen pertsona oporretan badago eta, itzuli aurretik, beste erabiltzaile batek agiria aldatu egin badu, lehen pertsona horrek zuzenean bertsio berrienera sartu ahal izango du eta ez da okerrik gertatzeko aukerarik egongo.
- **Ezagutza erakunde osoarekin partekatu**: taldeko edozein kidek erants diezaioke edukia atariari. Erabiltzaileak "irakurleentzat" argitaratu nahi duen informazioa erraz eta era dinamikoan argitaratzeko bidea behar da eta, ahal den neurrian, informazio hori prestatzeko baliatutako bitarteko bera erabiliz (adib., Microsoft Word).
- **Kapital intelektualari ahalik eta etekinik handiena atera**: egileak esku artean duen informazioa era dinamikoan argitaratzeko

moduan egon behar du eta hori jasoko duten irakurleek, berriz, informazioa modu generikoan kontsultatu ahal izango dute. Tresnaren xede nagusia da baimendutako edozein pertsonari finkatutako informazio guztia lortzeko aukera ematea. Horren ildotik,

"Mezularitzako zerbitzua ez da elkarlanerako tresna, baizik eta komunikaziorako tresna baino ez."

bilaketa-teknologiari esker, baliabide partekatuetan, Web guneetan eta datu-baseetan edozein agiri aurkitu ahal izango dugu, eta ez dugu zerotik hasi beharrik izango.

- **Atari pertsonalizatuak sortu**: malgua denez, horrelako inguruneak ere ezar daitezke, adibidez, Estranet-a; halakoen bidez, kanpoko erabiltzaileek euren agiriak bidali eta/edo bilaketak egin ahal izango dituzte.
- **Prozesuak automatizatu**: alerten bidez informazio garrantzitsua aurki daiteke. Alertek agiri, gune edo aplikazio bat erantsi edo aldatu dela ohartarazten diete taldeko kideei eta, beraz, berehalako informazioa jasotzea

## EZAUGARRIAK

Elkarlaneko ingurunearen ezaugarri nagusiak 3 bloketan bana ditzakegu:

- **Autozerbitzua**: elkarlaneko eremua sortzeko prozesuak baimendutako edozein pertsonaren eskura egon behar du; ez da beharrezkoa izango informatikako ezagutza berezirik izatea eta minutu gutxi batzuetan burutu ahal izango da. Asmoa da proiektuaren burua ardura dadila eremua kudeatzeaz eta berehala lanean has dadila, inolako bitartekorik gabe, horrela errazagoa izango baita lanaren kontrola eta jarraipena egitea. Testuinguru berri honetan, informatikariak zerbitzuaren kalitatea eta estaldura funtzionala bermatzeaz, tresna egunero 24 orduz eskuragarri egoteaz, e.a. arduratuko dira; ohiko zereginak alde batera utziko dituzte, besteak beste, elkarlaneko

eremua sortzeko prozesua, eremu horren antolaketa eta erabiltzaileen kudeaketa.

- **Erabilerraztasuna**: informazioa trukatzeko gunea sortu ondoren, elkarlana erabiltzeko beharrezko tresna-multzoa administratzailearen eta parte hartzen duten erabiltzaileen esku jarriko da, testu-tratamenduko programa informatikoa edo posta-programa erabiltzen ariko bailiran. Horretarako, Web nabigatzailearen bidez ere argitaratu ahal izango dira agiriak.
- **%100eko sarbidea**: laneko eremuari esker, proiektu berean elkarlanean diharduten pertsonak inolako zailtasunik gabe jardun ahal izango dute elkarlanean tresna horretaz baliatuta. Gaur egun, bitartekorik erabilienean Interneteko nabigatzaileak dira.

ahalbidetzen dute. Era berean, agiri baten inguruan izandako gorabehera guztien berri ere ematen dute (hots, nork sortu duen, nork aldatu duen, e.a.).

horiek erabiltzeak elkarlanera bideratutako ikaste-prozesuak sustatzen ditu, beste pertsona batzuei zein aurrerapen egin den erakusteko aukera ematen baitute; horrela, etengabe berrelikatu egiten dira eta arazoak konpontzea



#### Sample Documents and Lists

This page shows all the libraries, lists, discussion boards, and surveys in this Web site. Click the name of a library or list to view its contents. To create a new library or list, click Create.

Document Libraries	Description	Items	Last Modified
Meeting Notes	Notes from the weekly team meeting.	21	1 minute ago
Product Specs	Specifications for products to be released next year.	16	1 minute ago
Shared Documents	Share a document with the team by adding it to this document library.	11	5 minutes ago

- **Ohiko interfazeak eta tresnak erabili:** prestakuntza-kostuak murriztea ahalbidetzen du. Izan ere, batetik, Microsoft Office-n familiako ohiko tresnak erabiltzen dira; bestetik, berriz, goitiberako koadroak zabalduko dira edizio-aukerak aurkezteko eta beste zenbait tresna jarriko dira arrastatu eta jaregiteko. Horien bidez, atariaren edukia eta diseinua pertsonalizatuko ditugu. Halaber, karpetetan barrena nabigatu eta edozein informazio kontsulta daiteke, Interneteko Web orrialdeetan egiten den moduan. Bestalde, IKTetako profesionalek Web elementuak garatu ahal izango dituzte Web funtzionalitate, aplikazio eta/edo zerbitzu berriak barneratzeko; xede horretarako, Microsoft Visual Studio .NET eta Microsoft Office FrontPage2003 bezalako tresnak erabiliko dituzte.

- **Garapen-denbora eta kostua murriztu:** oinarrizko atari-zerbitzuak (bilaketa-aukera, guneen administrazioa, e.a.) hasieratik konfiguratuta datozenez, laneko eremu partekatua ezar daiteke, bestelako garapenik egin beharrik izan gabe.


#### Sample Contacts

Use the Contacts list for information about people that your team works with.

Last Name	First Name	Company	Business Phone	Home Phone	E-mail Address
Asberg	Jesper	A. Datum Corporation	999-999-9999		someone@example.com
Hartwig	Doris	Northwind Traders	999-999-9999		someone@example.com
King	Russell	Blue Yonder Airlines	999-999-9999		someone@example.com
Pai	Jyothi	The Phone	999-999-9999		someone@example.com

Azken finean, informazioa erraz gorde daiteke eta egileak berak lanak sortu, hautatu, antolatu, editatu eta ebaluatu ditzake. Bestalde, ingurune

#### Sample Artwork for new ad campaign



edo, besterik gabe, analisi eta sintesirako ahalmena hobetzea ahalbidetzen dute.

Azken batez, ingurune horiei esker, hainbat pertsona agiri berarekin elkarlanean aritzeko jarduerak garatzen dira.


Teknologia-euskarri honek dituen abantaila nagusien artean, honako hauek aipa ditzakegu:

- **Erabilerraztasuna.**
- **Malgutasun** handia.
- Lanaren bilakaeraren **kontrola** eta jarraipena.
- **Azkartasuna** eta **segurtasuna** informazio eguneratua trukatzekoan.

## ONDORIOA

Gaur egun erabiltzen diren elkarlanerako tresnak alde batera utzita, erakundeek benetako elkarlanean jardungo balute, behar horietan kostu baxuagoan erantzuteaz gain, erabiltzaileei artikuluan zehar aipatu diren abantaila guztiak eskaini ahal izango lizkiekete eta, ondorioz, elkarlana sortzeko benetako tresna jarriko lukete langileen esku.

Azken buruan, eskuragarri dagoen informazioaren erabilera hobetzea da helburua.



*Informazioa partekatzea garrantzitsua da lantaldeentzat; horri esker, ez dute lan berbera bi aldiz egin behar eta ziur egon daitezke taldeko kide guztiak informazio bera (koherentea eta eguneratua) erabiltzen dutela.*



## BLOG KORPORATIBOAK



Blogak 90eko hamarkadan agertu ziren, bereziki AEBetan. Hori dela eta, ezin esan dezakegu kontzeptu berria denik. Hala ere, erakunde handiak orain hasi dira aztertzen korporazio-mailan blogak erabiltzeak zein abantaila izan ditzakeen.



### HIZTEGIA

<sup>(4)</sup> **Bloga:** nor bere kabuz egiten duen argitalpen birtuala; bertan, istorioak txertatzen dira aldian-aldian, alderantzizko ordena kronologikoan. Informazio gehiago nahi izanez gero, Aurrera aldizkariaren 17. zk.an (2005eko martxokoan) agertu zen “Weblog” artikulua kontsulta dezakezu.

<sup>(5)</sup> **Blogosfera:** ingelesezko “blogosphere” hitzetik dator eta weblog guztien multzoari egiten dio erreferentzia.

<sup>(6)</sup> **CEO** (Chief Executive Officer edo zuzendari exekutiboa): enpresa edo konpainiako hierarkian dagoen kargu gorena da.

<sup>(7)</sup> **Iritzi-emaileak:** gai jakin baten inguruko iritzi, hausnarketa edo kritikak agertzeko blogaz baliatzen diren pertsonak dira. Normalean, gustura ez dauden produktu edo zerbitzu baten erabiltzaileak (bezeroak) izaten dira; haserrea edo ezinegona ezagutarazi nahi dute eta enpresaren izena zalantzan jartzen dute.

**A**urretik beste artikuluren batean adierazi genuen bezala, blogak edo weblogak<sup>(4)</sup> batez ere partikularrek erabiltzen dituzte. Hala ere, zenbait enpresa jada blogosferan<sup>(5)</sup> murgildu dira eta, adituen arabera, benetako hazkundea 2006an hasiko dela dirudi. Hori dela eta, gaur egun informatikako arduradunen erronka **weblogekin erakundeei zein aukera eskaintzen dizkieten eta ingurune korporatiboan aplikatu ote daitezkeen ikusi eta baloratzea** da. Egia da zenbait sektoretan oso gomendagarria izan daitekeela weblogak erabiltzea, bezero-kopurua edo bezeroen ezaugarriak aintzat hartuta; hala ere, beste sektore batzuetan, Internetek ia ez du eraginik eta, beraz, ez du zentzurik erakunde batek denbora eta ahaleginak xahutzea bere weblog korporatibo propioa garatzeko.



Erakunde berritzaileenak jada ohartu dira blogek oso ahalmen handia dutela beren langile eta/edo bezeroekin komunikatzeko bitarteko gisa. Adibidez, IBMek 15.000 langile baino gehiago ditu bere blog zentrolean eta Sun Microsystems enpresak 2.000 blog indibidual baino gehiago barneratzen ditu eremu berean. IBM eta Sun enpresek bezala, 60 konpainia handik baino gehiagok (nagusiki eremu teknologikokoak) dagoeneko blog korporatiboak dituzte edo blogak erabiltzea sustatzen dute langileen artean. Enpresetako goi-kargudunek

ere badute jada fenomeno honen berri. Gaur egun, Estatu Batuetako CEOen<sup>(6)</sup> %7k baino gehiagok “blogeatzen” du; 2004an, aldiz, ia ez zegoen goi-kargudunik blogosferan. Blogak erabiltzeko aipatu dituzten arrazoi nagusiak barne-komunikazioak egiteko oso erabilerrazak direla eta hirugarrenetikiko (nagusiki bezeroetikiko) harremanetarako oso eraginkorrak direla izan dira.

### MARKETINA BAINO ZERBAIT GEHIAGO

Zenbait erakundek egiaztatu ahal izan duten bezala, blog korporatibo batek, bezeroetikiko harremanak arintzeaz gain, erakundeak sarean gehiago agertzea ahalbidetzen du, eta horrela, beraz, merkataritzako tresna ere bihurtzen da. Blogak **interaktiboak** direnez, **marketinako tresna** eraginkorrak bihurtzen dira. Horren ildotik, Gartner aholkularitza-enpresak aurreikusitakoaren arabera, datozen urteetan blog korporatiboek bilakabidean aurrera egingo dute eta eragin handiagoa izango dute marketin korporatiboko mezu gisa.

Ingurune horiek hedatu egin direnez, gerta daiteke datozen urteetan marketina oso eraginkorra ez izatea, ez behintzat tradizioz jaso dugun marketinaren kontzeptua. Zergatik? Iritzi-emaile<sup>(7)</sup> deitutakoen “zeharkako” marketina gero eta zabalduago dagoelako. Hori dela eta, enpresek nahitaez harreman estuagoa eta gardenagoa izan behar dute bezeroekin, besteak beste, horrelako atarien bidez.

Nolanahi ere, **blog korporatiboak ez dira salmenta- edo publizitate-kanal soiltzat hartu behar**. Hala eginez gero, blog faltsuak (“fake blogs”) sortzen ariko ginateke eta, ondorioz, bezeroarekin komunikatzeko eta harreman estuagoa sortzeko ahalmena alferrik galduko litzateke, bezeroak “propaganda” hutsa baino zerbaite gehiago aurkitu nahi baitu blogetan.

Azken finean, enpresak irakurleei ahalik eta

informazio gehien emateko konpromisoa hartu behar du eta jasotzen dituen kritikak onartzen jakin behar du. Iritzi negatiboak kontuan ez hartzeak enpresaren izenari kalte egin diezaiokete eta enpresak larrutik ordain dezake.

## ERABILPEN ARAUAK

Erakundearen ikuspegitik, blog korporatiboak ahalmen handiko komunikazio-kanala dira, oso erabilerrazak direlako eta helmen handia dutelako. Horien arrakasta bermatzeko, funtsezkoa da, besteak beste, nola erabiliko den zehaztea (hots, horren xedea zehatz-mehatz definitzea); orobat, garrantzitsua da blogosfera

**“Azken finean, helburua oinarritzko jokabide-arauak ezartzea da, parte-hartzaile guztiek gardentasunez eta zintzotasunez jokatu dutela ziurtatzeko.”**

“irakurtzen jakitea” eta enpresan nork blogatu dezakeen ezartzea. Azken finean, helburua oinarritzko **“jokabide-arauak”** ezartzea da, parte-hartzaile guztiek **gardentasunez** eta **zintzotasunez** jokatu dutela ziurtatzeko eta, horrela, blogaren funtzionamendu egokia bermatzeko. Itxuraz logikoa eta erraza den arren, hori guztia lortzea oso zaila izan daiteke; izan ere, kasu askotan, erakundeak pentsamoldea aldatzera behartzen ditu, haien funtzionamendua kanpoaldearekiko hermetismoan eta/edo sekretismoan oinarrituta egoten baita. Pentsamoldea aldatzen ez bada, blogosferak, ziurrenik, barne-komunikazioko krisia sortuko du.

Informatikako arduradunek ondo asko dakitenez, teknologiak ez du ezertan edo ia ezertan laguntzen, ez badakar erabilera ahalbidetzen duten antolaketa-prozedura eta egitura gehigarriak. Hori dela eta, beharrezkoa da, besteak beste, **blogatzen** duten langileekin tratatzen jakitea; blog korporatiboan iritziak askatasun osoz truka daitezten sustatzea; publikoki jasotako feedback-a kudeatzen jakitea; eta jendeari informazioa “partekatzeak” zein abantaila dituen erakustea.

Blogak ez dira soilik bezero eta hornitzaileekiko harremanak hobetzeko (nahiz eta alderdi horretatik oso eginkizun garrantzitsua burutzen


duten). Are gehiago, erakundeen barne-eraginkortasuna hobetzen ere lagun dezakete; izan ere, langileek produktu edo ideiarene baten inguruan dituzten ezagutzak trukatu ditzakete edo berritasunak ere kontsulta ditzakete, korporazioaren intranetean baino modu informala goan. Hizkera arrunta erabiltzeak eta aldian-aldian informazioa eguneratzeak bai erakunde bertako bai erakundeaz kanpoko irakurleen interesa erakarri eta mantentzen laguntzen dute eta, horrela, bloga berrelikatu egiten da.

## KOMUNIKAZIO KANALA

Beste komunikazio-tresna batzuekin alderatuta, blogen abantaila handienetako bat da bezero eta/edo langilearekiko **komunikazioa zuzenagoa** izatea ahalbidetzen duela, beste kanal batzuetan nagusi diren formalismoak eta zurruntasuna alde batera utzita. Enpresek euren alderdirik “pertsonalena” aurkeztzen dute eta alde bateko komunikazioak **elkarrizketari** uzten dio lekua. Elkarrizketa horren bidez, batetik, erabiltzailearen kezka zeintzuk diren hobeto ikus daiteke, bere kezka edo iradokizunak askoz ere bide zuzenagoak erabilita helaraz baitiezazkioke erakundeari; eta, bestetik, bi aldeen artean konfiantza handiagoa sortuko da. Hala, beraz, erakundeek ideia bat edo produktu nahiz zerbitzu berri bat ezagutarazteko eta bezeroen artean interesik pizten ote duen ikusteko erabil ditzakete blogak. Esate baterako, Telefónica Móviles enpresak, UMTS zerbitzua abian jarri aurretik, azterlana egitea eskatu zuen,



ordurako sarean zeuden blogak erabiltzen zituztenek horren inguruan zuten iritzia ezagutzeko. Enpresaren arabera, kanal hori



### Blog arrakastatsuak

*Blog korporatiboak arrakasta izateko, hasiera-hasieratik helburu garbia eta zehatza izan behar du. Ondorengo adibideetan ikus dezakegun bezala, era guztietako blogak daude:*

- **Randy Baselerrek**, Boeing enpresako marketineko lehendakariordeak, abiazio komertzialarekin zerikusia duten gaien inguruan hitz egiteko erabiltzen du bere bloga.
- **Bestalde**, Estatu Batuetako **StonyField Farm** esnekien enpresak 4 blog ezberdin ditu, bakoitza erabiltzaile-mota bati zuzendua:
  - *Baby Babel* (bularreko haurren gurasoei)
  - *Strong Women Daily News* (osasun-arloko gaietan interesatuta dauden emakumeei)
  - *The Bovine Bugle* (produktu organikoaren kontsumitzaileei)
  - *Creating Healthy Kids* (haurren elikaduraz arduratuta dauden guraso eta hezitzaileei).



EJIE

*Eusko Jaurlaritzaren Elkartea Informatikoa lehen urratsak egiten ari da bere lehen blog korporatiboa abian jartzeko. Proiektuaren helburu nagusia erakundeko arloen artean ezagutzak elkartrukatzeko aukera emango duen tresna eskaintzea da.*

erabili izanaren arrazoietako bat izan zen telefonoz inkesta egitea baino dezente merkeagoa zela eta ondorioak berberak zirela.

Aurretik esandakoa osatzeko, aipatu behar da bloga aktibo mantenduz gero, **markak Interneten duen irudia eta "ikusgarritasuna" hobetu egiten direla**, bilatzaileetan maizago agertuko baita.

## BARNEKOA EDO KANPOKOA?

Orain arte behintzat, Europan ez da ohikoa erakunde handiek mota honetako soluzio teknologikoak erabiltzea komunikazio-tresna gisa, ez barne-komunikaziorako, ezta kanpoko komunikaziorako ere.

## Barne-komunikazioko adibideak:

a) Kasu batzuetan, **proiektu bat kudeatzen ari den** lantalde bereko kideek euren artean komunikatzeko tresna gisa erabili izan dute. Bertan, bileretako aktak eta/edo interes orokorreko agiriak argitaratu eta erraz kategorizatzen dira. **Proiektuak kudeatzeko tresna espezifikoekin** alderatuta, blogek duten abantaila bakarra da oso erraz instalatu eta erabiltzen direla. Hala ere, ez dituzte oinarrizko funtzionalitateak: proiektu-plangintza, eginkizun eta baliabideen esleipena, agirien kudeaketa, aurrekontuaren kudeaketa, e.a.

b) Webloga **komunikaziorako** ere erabiltzen da, iragarki-oholen edo email korporatiboen antzera, komunikaziorako beste tresna bat bailitzan. Abantaila bat da **ez dela bidegabe sartzen**, eta langileek euren interesekoak diren barne-

Bloga	Web orria
IBM Blogetarako sarbide-gida	<a href="http://smokey.rhs.com/web/ibm/hhbg2ib.nsf/web/index.html">http://smokey.rhs.com/web/ibm/hhbg2ib.nsf/web/index.html</a>
SUN Microsystems	<a href="http://blogs.sun.com/roller/main.do">http://blogs.sun.com/roller/main.do</a>
Bob Lutz	<a href="http://fastlane.gmblogs.com">http://fastlane.gmblogs.com</a>
Randy Baseler	<a href="http://www.boeing.com/rand">http://www.boeing.com/rand</a>
Baby Babble	<a href="http://stonyfieldfarm.com/weblog/BabyBabble/index.html">http://stonyfieldfarm.com/weblog/BabyBabble/index.html</a>
Strong Women Daily News	<a href="http://stonyfieldfarm.com/weblog/StrongWomenDailyNews/index.html">http://stonyfieldfarm.com/weblog/StrongWomenDailyNews/index.html</a>
The Bovine Bugle	<a href="http://stonyfieldfarm.com/weblog/BovineBugle/index.html">http://stonyfieldfarm.com/weblog/BovineBugle/index.html</a>
Creating Healthy Kids	<a href="http://stonyfieldfarm.com/weblog/CreatingHealthyKids/index.html">http://stonyfieldfarm.com/weblog/CreatingHealthyKids/index.html</a>
Shoomo - E-commerce	<a href="http://blog.shoomo.com/">http://blog.shoomo.com/</a>
Alfaguara – Argitaletxea	<a href="http://www.alfaguara.santillana.es/blog.php">http://www.alfaguara.santillana.es/blog.php</a>
Diveka - Multimedia	<a href="http://blogs.diveka.com/">http://blogs.diveka.com/</a>
TopMadrid – Madrildo gida	<a href="http://www.topmadrid.com/">http://www.topmadrid.com/</a>
Traber – Bidaietarako gida	<a href="http://blog.trabber.com/">http://blog.trabber.com/</a>
Sanitas (babestua) - Aseguru medikoa	<a href="http://www.bebesymas.com/">http://www.bebesymas.com/</a>
Alcalá 70 – Higiezin enpresa	<a href="http://www.blog70.com/">http://www.blog70.com/</a>
NintenDOGS - Maskota birtuala	<a href="http://nintendogs.nintendo.es/blog/index.asp?lang=es">http://nintendogs.nintendo.es/blog/index.asp?lang=es</a>
Prakan Studios – Informatika-zerbitzuak	<a href="http://www.prakanstudios.com/blog/">http://www.prakanstudios.com/blog/</a>
Fon – Wifi sarea	<a href="http://blog.fon.com/es/">http://blog.fon.com/es/</a>
Serenity - Filma	<a href="http://www.serenity.weblogs.es/">http://www.serenity.weblogs.es/</a>
Visteadecuadamente – Arropa-denda	<a href="http://www.visteadecuadamente.com/">http://www.visteadecuadamente.com/</a>
Basemovil - Informatika mugikorra	<a href="http://www.elondra.com/blog/blog/">http://www.elondra.com/blog/blog/</a>
DLL – Informatika-zerbitzuak	<a href="http://dllservice.blogspot.com/">http://dllservice.blogspot.com/</a>
grupo SM - Argitaletxea	<a href="http://blogdsi.typepad.com/">http://blogdsi.typepad.com/</a>
Alianzo – Gizarte-sareak	<a href="http://www.alianzo.com/blogs/redessociales">http://www.alianzo.com/blogs/redessociales</a>
wysiwyg - Komunikazio interaktiboa	<a href="http://www.weloveinternet.com/">http://www.weloveinternet.com/</a>
AXPE – Aholkularitza-enpresa	<a href="http://www.axpe-blogs.com/">http://www.axpe-blogs.com/</a>
Salvelinus – Arrantza-gidak	<a href="http://www.salvelinus.com/blog/">http://www.salvelinus.com/blog/</a>
El Coleccionista - Jatetxea	<a href="http://www.elcoleccionista.net">http://www.elcoleccionista.net</a>
Territorio Creativo - Komunikazioa	<a href="http://etc.territoriocreativo.es/etc">http://etc.territoriocreativo.es/etc</a>
Camyna - Informazioaren teknologiak	<a href="http://www.camyna.com/wordpress/">http://www.camyna.com/wordpress/</a>



blogak aukeratu ditzakete eta horietan harpidetu.

#### Kanpo-komunikazioko adibideak:

a) RSS bidezko eduki-banaketaren automatizazioaz baliatu eta "prentsa-areto" modura erabil daiteke, Nokia<sup>(8)</sup> enpresak egiten duen bezala. Hala ere, bada xede hori lortzeko tresna egokiagorik.

**"Erakundearen ikuspegitik, blog korporatiboak ahalmen handiko komunikazio-kanala dira."**

b) Bloga erakundearen "ispilu" modura erabil daiteke (hauxe litzateke blog korporatiboa); horri esker, bukaerako bezero eta/edo erabiltzaileengandik gertuago egongo ginateke. Kontua da, arrazoi ezberdinak direla medio, enpresa guztiak ez daudela prest komunikazio-kanal horiek erabiltzeko behar adina gardentasunez jokatzeko. Adibide gisa, GMren<sup>(8)</sup> edo SAPen<sup>(8)</sup> weblogak aipa ditzakegu.

c) Webloga marketineko tresna gisa ere erabili ohi da; horien bidez, erakundeak diziplina jakin batean nagusi dela erakus dezake eta, gainera, bilatzaileetan kokapen ona lortu. Jakina, bilatzaileek garrantzi berezia eskaintzen diote blogen edukari (zein egitura duten, maiz eguneratzen ote diren, sarrerako eta irteerako zenbat lotura dituen), baina hori gero eta bakanagoa bihurtuko da, blogen erabilera orokortu ahala.

#### ERAGOZPENA

Gailu teknologiko berria erosi edo zerbitzuren bat erabiltzen hasi aurretik, normalean, gai horretan aditua den konfiantzazko pertsonaren bati eskatzen zaio aholkua. Gure inguruan aditurik ez badugu, errazena Interneten ikertzea da: gai horretan aditua den batek emandako iritzia irakurri, Interneteko foroetan esaten denari begiratu, web guneren batean analisi konparatiboa irakurri, e.a. Gero eta erabiltzaile gehiagok aukeratzen dute sarea informazioa bilatzeko, erosi edo ez erabaki aurretik. Zenbait azterlanen arabera, gaur egun Estatu Batuetako erabiltzaileen artean Internet da informazioa lortzeko bitarteko nagusia; horren atzetik daude telebista, irratia, prentsa eta/edo aldizkariak. Hori Internetek eskaintzen duen interakzio-maila handiari zor zaio.

Kalkuluen arabera, 2001ean 330.000 mezu erregistratu ziren; mezu horietan, kontsumitzaileek kontsumo handiko produktu edo zerbitzu baten inguruan zuten iritzia adierazten zuten. Adibidez, Estatu Batuetan, kontsumitzaileen foroak oso azkar zabaltzen ari dira eta, haiei esker, enpresa handiek neurritan egindako txostenak lor ditzakete, ez bakarrik euren produktuen (edo zerbitzuen) gaineko iritzia buruz, baizik eta baita lehiakideen produktu eta/edo zerbitzuekin alderatuta ematen zaien puntuazioari buruz ere.

Zurrumurruak (eta batez ere pozik ez dagoen erabiltzailearen batengandik datozen zurrumurru negatiboak) kontsumitzaileen euren ardurapean dauden iritzi-foroetan sortu ohi dira; ondoren, blogetara igarotzen dira, eta, azkenik, bitarteko tradizionalen bidez, gainerakoengana heltzen



dira. Horixe da, zehazki, halako atarien eragozpenik handiena; hots, zurrumurrua. Hori dela eta, funtsezkoa da enpresak prest egotea eta garbi eta gardentasunez jokatzeko; horrela, aurrea hartu eta komunikazioaren eremuan neurri zuzentzaileak ezarri ahal izango dituzte, etorkizunean ondorio negatiboak ekidite aldera.

#### ONDORIOA

Une honetan, gauza bakarra esan dezakegu bukatu aurretik; alegia, erakundearen komunikaziorako **beste kanal bat** ezartzeak soilik ez dituela konponduko informazio-trukeko arazoak, horrez gain beste hobekuntza batzuk ere egiten ez badira (besteak beste, gardentasunaren aldeko eta informazioa partekatu behar diren inguruan kontzientziatzeko politikak).



#### HIZTEGIA

<sup>(8)</sup> **Kasu praktikoak:**

##### Nokia

<http://ncsp.forum.nokia.com/csp/>

##### GM

<http://fastlane.gmblogs.com/>

##### SAP

<http://www.sap.com/community/pub/blogs.epx?logonStatusCheck=0>

##### Corporate Weblog

**Manifesto** izenekoan zenbait arau ematen dira blog korporatiboak ezarri eta erabiltzearen inguruan.

<http://radio.weblogs.com/000/1011/2003/02/26.html#2357>



ALBOAN:



IDABA: Itzulpenen Datu Basea

**I**DABA (Itzulpenen Datu Basea) HAEEK egindako **itzulpenen memoriak** barneratzen dituen datu-base edo bilduma da.

Sisteman barneratzen den itzulpen bakoitzak datu osagarriak dakartza berarekin; datu horiek honakoen berri ematen dute: itzulpenaren iturria (zein sail edo enpresak bidali duen), agiri-mota (legea, dekretua, artikulua, plana...), lan horretan parte hartu du(t)en itzultzailea(k), e.a.

ITZULPEN MEMORIAK

Tresna honetan, adituek "lerrokatutako itzulpen-corpus eleanitz paraleloa" deitzen dutena jasotzen da eta, horri esker, errazagoa da itzulpen bukatuen memoria guztiak kudeatzea. Beste soluzio batzuekin alderatuta, honen abantailarik handiena da testua hainbat mailatan segmentatzea ahalbidetzen duela. Horrez gain, ez du inolako mugarik ezartzen hizkuntza-kopuruari dagokionez (nahiz eta, normalean, gutxienez euskara eta gaztelania barneratuko dituen).

Lehen fasean, datu-base hau nagusiki **IZOk** ("Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak") erabili du. **Hiru helburu nagusi** betetzeko jarri da abian:

1.- **IZOk** egiten dituen itzulpenen **datu-basea** izatea, batez ere, garrantziari edo erabilgarritasunari begiratuta funtsezkotzat hartzen diren itzulpenena: Estatuko nahiz Europako oinarrizko legeak eta arauak, Eusko Legebiltzarreko legeak, dekretuak, garrantzi berezia duten planak eta txostenak, e.a.

2.- **Itzulpen-memoriak** sor daitezzen ahalbidetzea; horretarako, bildumatik aukeratutako agiriak hartuko dira oinarri gisa, edo kontsultaren xedetzat hartutako hitz edo esaldiei dagozkien segmentuak barneratzen dituen agiriak.

3.- Euskaraz lan egiten duten edo euskaraz lan egin nahi duten Eusko Jaurlaritzako langileen eskura egotea, **kontsultarako tresna** gisa, euren eguneroko lanean sor daitezkeen bi arazori aurre egiten lagun diezaien: batetik, euskararen inguruko zalantza terminologikoak (edo bestelako zalantzak) argitzen; eta oinarrizko arauen inguruan testuak euskaraz idazten, txostenetan, e.a. erabili ahal izateko.

Datu osagarri gisa, esan behar da, nahikoa berria

Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala

Adibidea: Aukeren menua

- ADMINISTRAZIOA
  - Fitxategiak ezabatu
  - Estatistikak
- EGUNERATZEA
  - Itzulpen-burua
  - Jatorri-erakundea
  - Saila
  - Erakunde-mota
  - Dokumentu-maila
  - Dokumentu-mota
  - Itzultzailea
- INPORTAZIOA
  - Trados, Tab
- ESPORTAZIOA
  - Trados Metadatuetatik
  - Trados Dokumentuetatik
  - Tab Metadatuetatik
  - Tab Dokumentuetatik
- KONTSULTA
  - Arrunta
  - Metadatuak hautatuta
  - Dokumentuak hautatuta

Adibidea: Bilaketa zehatzaren xede izango diren agiriak aukeratzea

Itzulp.	Jat. Erakundea	Dok. izena	Esped. zenbakia	Itzultzailea	Dok. maila	Dok. mota	Data	
<input checked="" type="checkbox"/>	325	Lehendakaritza	Estatutu Politikoa (aurreproiektua)		ABR_JUG	Aginduzko itzulpenak	Legea	2005-01-25
<input type="checkbox"/>	366	Ogasun Saila	Aurrezki-kutxen legea aldatzeko Lege-proiektua	04/97	ABR	Aginduzko itzulpenak	Legea	2005-01-27
<input checked="" type="checkbox"/>	367	Justizia Saila	Gizarteko bazterkeriaren aurkako Lege-proiektua	05/110	MIL	Aginduzko itzulpenak	Legea	2005-01-27

den arren, datu-baseak ia 400 agiri biltzen dituela dagoeneko (agiri gehien dituzten kategoriak honako hauek dira: txostenak, azterketak, ebazpenak, gutunak, e.a.)

## ALDERDI TEKNIKOAK

Esku artean dugun soluzio informatikoa **UZEI** enpresak garatu du ([www.uzei.com](http://www.uzei.com)). Era berean, HAEERI doakion EJIEn laguntza tekniko beharrezko egokitzapenak egiteaz arduratu da, XL-Nets nahiz gainerako euskarrietarako. Horrela, Eusko Jaurlaritzaren Intranetaren bidez (JAKINA!) erabili ahal izatea lortu da eta, beraz, informatikaren arloan indarrean dauden estandarrak bete dira.

Horrez gain esan dezakegu Javan garatu dela (Servlets-en bidez), Web Logic 8 aplikazioaren pean. IDABAren euskarria Oracle 8 datu-basea da, Intermediaren bidez. Intermediak eskaintzen dituen aukerei esker, bilaketak oso azkar egiten dira, informazio ugari darabilgun arren.

## INPORTAZIOA / ESPORTAZIOA

Aplikazio honen bidez, erabiltzaileak bildumako datuak eskura ditzake; horrez gain, erabiltzaileak informazioa gehi dezake eta bere harri-koskorra ekarri aplikazioa osatzen joateko.

**INPORTAZIOA:** bukatutako itzulpen bat sisteman barnertzeko, bi metodo erabil daitezke:

- **TXT** formatuko fitxategiak. Kasu honetan, segmentu bakoitzari "itzulera-marka" (paragrafo-bukaerako marka) jarriko zaio eta hizkuntza bakoitzari "tabulazioa".
- Trados-eko **.BAK** fitxategiak; alegia, Ordenagailuz Lagundutako Itzulpenetarako tresnaren bidez itzuli diren agiriak.

Inportazio-metodo horiek erabilita, lehendik egindako hainbat itzulpen oso erraz berrerabil ditzakegu, guztia berriro idatzi beharrik izan gabe, eta azkar eta inolako zailtasunik gabe barneratu daitezke sisteman.

**ESPORTAZIOA:** informazio-espportazioa egiteko (inportazioaren aurkako eragiketa), sistemak bi aukera ematen dizkigu informazioaren formatuari dagokionez:

- **TXT** formatua (informazioa tabulazioen bidez mugatuta dago).
- **TMW** formatua (Trados-erako TMX- Translation Memory eXchange- formatua).

Demagun espportazioa egin ondoren TXT fitxategia dugula eta Word dokumentura eraman nahi dugula. Horretarako, testua hautatu behar dugu eta "*testua taula bihurtu*" aukeratu. Horrela, testua segmentutan banatuta eta gelaxkatan lerrotatuta geratuko da. Aldiz, testua itzulpen-memoria gisa erabili nahi badugu (hots, aipatu berri dugun prozesuaren alderantzizkoa egin), besterik gabe gure itzulpen-memorian sartu behar dugu, darabilgun sistema edozein dela ere (WORDFAST, TRADOS edo besteren bat).



"Nahikoa berria den arren, datu-baseak ia 400 agiri biltzen ditu dagoeneko."

## ZER EGIN ERABILI AHAL IZATEKO?

Lanerako erabilgarria duzelako baliatu nahi baduzue tresna horretaz, saileko informatikako arduradunaren bidez eskatu behar duzue. Hark M53 eskabidea izapidetuko du eta **R21 aplikaziorako** sarbidea eskatuko du (R21 IDABARI esleitu zaion barne-kodea da).



Eusko Jaurlaritzan erabiltzen diren itzulpen-sistemekin erlazioz atutako informazio gehiago nahi izanez gero, AURRERA! Aldizkari 12. zk. (2003ko abenduko) kontsulta daiteke.

Adibidea: segmentu bera gaztelaniaz, katalanez, ingelesez, euskaraz eta frantsesez

233. 2004-10-28 Atzerri Arazoetako Ministerioa Oinarritzko itzulpenak besterik. EUROPAKO KONSTITUZIOA-ADIERAZPENAK (es/fr/en/eu/cat) MAM Oharra

Sorburu-hizkuntza: ES	Xede-hizkuntza: CA	Xede-hizkuntza: EN	Xede-hizkuntza: EU	Xede-hizkuntza: FR
636 La Conferencia declara que, en cuanto se haya firmado el Tratado por el que se establece una Constitución para Europa, el Secretario General del Consejo, Alto Representante de la Política Exterior y de Seguridad Común, la Comisión y los Estados miembros deberían comenzar los trabajos preparatorios relativos al servicio europeo de acción exterior.	636 La Conferència declara que, quan s'haja firmat el Tractat pel qual s'establirà una Constitució per a Europa, el secretari general del Consell, Alt Representant de la Política Exterior i de Seguretat Comuna, la Comissió i els Estats membres haurien de començar els treballs preparatoris relatius al servei europeu d'acció exterior.	636 The Conference declares that, as soon as the Treaty establishing a Constitution for Europe is signed, the Secretary-General of the Council, High Representative for the common foreign and security policy, the Commission and the Member States should begin preparatory work on the European External Action Service.	636 Biltzarak hau adierazten du: Europarentzat Konstituzio bat eratzen duen Tratatua sinatu bezain laster, Kontseiluaren idazkari nagusiak, atzerri- eta segurtasun-politika erkideko goi-ordezkariek, Batzordeak eta estatu kideek atzerri-ekintzarako Europako zerbitzua prestatzeko lanei ekin beharko lieketela.	636 La Conférence déclare que, dès la signature du traité établissant une Constitution pour l'Europe, le secrétaire général du Conseil, Haut représentant pour la politique étrangère et de sécurité commune, la Commission et les États membres devraient entamer les travaux préparatoires relatifs au Service européen pour l'action extérieure.



21. zk.

2006ko martxo



## Software gehiago euskaraz

Bai lanerako euskara darabiltenek bai euskara ikasten ari direnek dagoeneko eskuragarri dituzte euskararekin zerikusia duten hainbat tresna, [www.euskara.euskadi.net](http://www.euskara.euskadi.net) web gunean ("Euskarazko softwarea deskargatzea" atalean):

hiztegi elektronikoak, ortografia-zuzentzaileak, sistema eragileak, bulegotika-paketeak, kudeaketako softwarea, OCR sistemak... Ildo berari jarraiki, Kultura Saileko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak (HPS)



beste utilitate batzuk ere jarri ditu interesdunen eskura (web gune horretan bertan). Utilitate horiek, kasu honetan, **3 hiztegiaren plug-inei** dagozkie: *Elhuyar Euskara/Gaztelania hiztegia*, *Elhuyar Euskara/Frantsesa hiztegia* eta *UZEIren sinonimoen hiztegia*.

Plug-inei dagozkien softwarea eta horiek instalatzeko baldintzak web gune horretan bertan aurkituko ditugu, gidaliburu modura. Oso erraz instalatzen dira. Behin hori eginda, nahi adina erabili ahal izango ditugu.

Era berean, software librea euskaraz sustatzeko lan-ildoari jarraiki, HPSk Linux sistema eragilearen **Debian banaketa** jarri du eskuragarri (atal berean). Kasu horretan, banaketa honetan txertatu den mahaigain grafikoa kudeatzeko bertsioa GNOMEren 2.12 bertsioa da.

Itzulpen-lanak UZEIk eta Elhuyarrek egin dituzte, HPSk itzulpenak gainbegiratu ditu, Zundan enpresak lokalizazio-lana egin du eta EJIEk koordinazio-lana.

Aurretik, HPSk Linux Mandrake 8.0 eta 10.0 bertsioak kaleratu ditu (Aurrera aldizkariak jakitera eman zuenez), eta horiek ere helbide beretik deskarga daitezke. Halaber, bertan OpenOffice.org bulegotika-paketea eskuragarri dago, euskaraz.

HPS



euskadi.net



[www.euskara.euskadi.net](http://www.euskara.euskadi.net)

## KZ Banda Zabala proiektua

2006. urtearen amaieran, eta KZ Banda Zabala proiektuaren helburuei jarraiki, EAeko **herrien %100ak** izango du Internetera sartzeko banda zabala, eta, beraz, zerbitzu hori lurralde osora hedatzen duen Europako lehen eskualdea izango da. Ekimen horri esker, gaur egun banda zabala EA Eren %90ean dago ezarrita (alegia, helburu ziren 102 udalerrietatik 93tan; horietatik 34 Bizkaian daude, 31 Gipuzkoan eta 37 Araban).

Proiektu hau 2004. urtearen hasieran Eusko Jaurlaritzak Euskadin eremu digitaletik kanpo utzitako guneei buruz egin zuen azterketari erantzuteko sortu zen. Helburua banda zabaleko teknologiak landa-guneetara helaraztea zen, operadore pribatuak ez baitziren haraino heltzen, errentagarritasun ekonomiko txikia zekarkielako. Premisa horren pean, eta helburu hori gauzatzeko aldera, Eusko Jaurlaritzak, Itelazpi elkartearen bidez, lehiaketa publikoa egin zuen 2004ko urrian. Bost lizitatuak aurkeztu ziren eta, azkenean, proiektua **Euskaltel** enpresari esleitu zitzaion.



Proiektua sortu zenetik, urtebete honetan, landa-guneetan bizi diren 80.000 herritarrek (EAeko guztizko biztanleriaren %4ak) Internetarako sarbidea izatea lortu da, hiriguneetako biztanleriaren aukera eta kostu ekonomiko berberekin. Emaiza horiek lortzeko, 8,4 milioi euroko inbertsioa egin da eta 900 km-ko sare kapilarra eta seinalea zabaltzeko ia 100 banagune ezarri dira.

Aukeratutako plataforma teknologikoa **WiMAX** izan da, irrati bidezko puntuko/puntu anitzeko linea. Plataforma horren euskarria ahalmen handiko garraio-sare nagusia da (irratiloturak); sare hori lurralde bakoitzean puntu batean (hargailuan) elkartzen da operadorearen sarearekin (zehazki, Oiz, Jaizkibel eta Zaldiaranen). Baserriaren fatxadan jarritako antenak transmisore horien seinalea jasoko du eta, hargailuen bidez, konexioa kable bidez erabiltzailearengana helduko da. Erabiltzaile partikularrentzat oso garestia izango litzatekeenez ekipoa sarearekin konektatzea, Eusko Jaurlaritzak 371 euroko finantza-laguntza emango du sareratze-alta bakoitzeko. Sistema horri esker, baserrietan banda zabalak segundoko 2 Mbps-ko abiadura izango du.

[www.itelazpi.net](http://www.itelazpi.net)

[www.kzbandazabala.net](http://www.kzbandazabala.net)

